

Amantala

Hitzak berak dioen bezala nire amaren atala zen amantala. Horrela esanda oso hotza dirudi. Nire amak beti soinean zeraman bai, batez ere sukaldean zegoenean. Eta sukaldea *Aintzizarren* bihotza zenez, familia osoaren bilgunea, amantalak guztiok besarkatzen gintuen.

Tupustean esnatu naiz oilasko izter erreen usainak gela osoa betetzen baitu. Aurrez aurre dudan ispiluak 10 urte nitueneko irudia itzuli dit.

— Baina hori ezinezkoa da! — Egin diot gogor nire buruari.

Masaila ukitu orduko ordea nire bizarra sumatu dut. Ispiluan dagoen umeak ez du eskuarekin inongo keinurik egin.

— Non arraiotik dator usain hori? — Haserre egon nahi dut, baina beti izan naiz jatun ona eta lerdea dariot ahotik. Sakon arnasten hasi naiz, usaina nondik datorren deszifratu nahian. Oin biluziekin lurra ukitu dudanean hotzikara bat sentitu dut. Memoria daukadanetik, beti egin du hotz *Aintzizarren*. Sukaldean izan ezik. Argia piztu gabe egin dut aurrera eta sukalderantz joan naiz. Ia lurrera erori naiz sarreran nengoela etxeko telefonoak jo duenean.

— Nor da? — Zakar bat irten zait ahotik.

— Ikusten dut oparitu nizun mugikorrari kasurik egin gabe jarraitzen duzula.

— Hori gertatzen da opariak zugar pentsatuz egiten dituzunean eta ez jaso behar dituenarengan pentsatuz...

— Tira... Zertara dator paketearena? Benetan ez dudala ulertzen honekin lortu nahi duzuna Xabier.

Min egin nahi didazu?

— Beste behin, Josune, galduta nago. Zer arraiotaz ari zara?

— Amantalaz ari naiz, amaren amantalaz! — Oihukatu du bere onetik aterata.

Aurpegia zurbiltzen ari zaidala nabaritu dut. Sukaldera ailegatzeko falta zaizkidan bi pausuak eman, argia piztu eta ez dut amantala ikusi.

— Josune, ez dakit zer gertatzen ari den, baina sinetsidazu, zin dagizut ez naizela ni izan...

Malkoak begietatik irten nahian sentitu ditut. Josunek, nire ahotsean izua sumatuta bere jarrera goxatu du.

— Lasai, egon lasai argituko dugu. — Hasperen egin ostean jarraitu du.

— Agian elkar ikusteko ordua iritsi zaigu.

Eskuak dardarka nituela eskegi dut telefonoa. Kafea preparatu dut ea horrela beroan sartzen nintzen, baina alferrik izan da. Sukaldeko erlojuaren azpian zintzilik dagoen margoari begira geratu

naiz. Mirenek, nire arreba gazteenak margotu zuen. Orain nahiago diot iraganeko baserriko paisaia islatzen duen pinturari begiratu leihotik begiratu baino. Konturatzeko 10 urte ditut berriro. Etxeko bostok baratzean gaude, lurra astindu eta eskuak zikintzen. Ama tomateak zaintzen ari da, aita berriz sukaldetik etorri berri da denontzat ur freskoa dakarrelarik. Josune eta Miren belaunetaraino heltzen zaizkien gomazko botekin modu traketsean baina gogotsu ahal dutenean laguntzen ari dira. Eguraldi bikaina dago, inguruan berdea, abereak eta lasaitasuna. Arnasa hartzean, inguratzen nauenarekin bat egiten dut. Zoriontsu naiz. Atearen hotsak berriro orainera nakar. Josune da. Bi musu eman dizkiogu elkarri, baina oso modu hotzean.

— Gustatzen zait utzi duzun bizarra. — Dio Josunek, gertutasuna lortu nahian.

— Ez pentsa hirikoen moda jarraitzeagatik denik, beraiek jarraitzen naute ni. — Diot Josuneren irribarre bat lortu nahian. Sukaldeko mahaiko hertza banatan eseri gara. Erdian Mirenen arte lanak biok behatzen gaitu.

— Itxura ona daukazu. — Diot zintzotasun osoz.

— Bai, zoriontsu naiz.

— Ez al duzu guzti honen falta sumatzen? — Botatzen diot bat batean. — Ez al zaizu odola berotu hona inguratu eta errepidea eraikitzeke egin duten zubi zatar hori ikustean? Hainbeste ordu igarotzen genituen zelaia... guztiz suntsituta.

— Orain ari zait odola berotzen. Beti aurpegiratzen didazu zuba eraiki zutenekoa... zu ez lagundu izana. *Aitzinzar* ez defendatu izana leporatzen didazu. Nik onartzen dut zuk baserriarekiko daukazun lotura, ezin al duzu zuk onartu nik baserria eta aitaren heriotzaren artean ikusten dudana lotura?

— Ulertzen dut, baina istripuak edozein tokitan gertatzen dira, ez soilik baserrian.

— Ez nazazu tuntuntzat hartu Xabier, hori badakit. Baina nire buruak zureak ez bezala funtzionatzen du. Zuri baserriak oroitzapen onak dakarzkizun bezala niri txarrak gogorarazten dizkit. Eta lastima da, ugariak izan bai dira momentu onak...

— Badakit zer esan nahi didazun, baina zaila egiten zait. Izan ere gure sustraiak hemen daude.

— Sustraiak ordea izugarri luzeak izan daitezke, Xabier. Nik ez diot uko egiten gure jatorriari.

— Ez zintudan gaizki sentiarazi nahi, ez apropos behintzat. Sentitzen dut. — Esaten diot begietara begira.

— Altxa momentu batean. Jarri hemen zutik, nire ondoan eta begiratu margoari. — Diot eskuarekin keinuak egiten dizkiodan bitartean.

Sukaldearen erdian zutik gaude biok. Eskua ematen diot Josuneri eta begirada belazean finkatzen dugu.

— Xabiiii! — Oihukatzen dit zazpi urteko Josunek. Zuhaitzean zintzilik dago. Belazearen beste aldetik korri egiten dut berarengana iristeko.

— Nola igo zara? Lagundu! — Esaten diot purrustaka.

— Zu baino azkarragoa naizela onartzen duzunean. — Dio Josunek mihia aterata.

— Bah, ez da hainbesterako. — Erantzuten diot.

— Horko zulo horretan jarri behar duzu hanka, gero eskuakin enbor honi eutsi eta kitto!

Josuneren laguntzaz lortzen dut zuhaitzera igotzera. Bere ondoan jarri eta Mireni begiratzen diogu. Zuhaitzaren gerizpean lokatz putzu bat sortu da eta Miren eskuak zikindu eta bere esku markak non nahi jartzen ari da. Irribarre bat dauka ahoan.

— Zuhaitz hau beti izango da gure toki sekretua. — Diot begiek dir dir egiten didatela.

— Baaaai! — Dio Mirenek algaraka.

Salto batez lurrera jaisten gara Josune eta biok. Lokatzezko putzuan zikindu eta zuhaitza erdian dugula eskutik heldu gara hirurok.

Orain 42 urte ditut eta enborrharen tokian metalezko zutabe bat dago, baina konturatu naiz nahi dudanean izan ditzakedala berriro 10 urte, eta baita 42 urte izanda ere bi arreba maitagarri izaten jarraitzen dudala. Beste behin, amantalak familia elkartu du.

Masusta.